



STEE-EILAS



MERITOAK EBALUATZEKO ETA OSAGARRI GEHIGARRIAK ESKATZEKO ETA ESLEITZEKO DEIALDIAREN LABURPENA ETA HASIERAKO GIDA

1) Nortzuk eskatu dezakete

Deialdia egiten denean, edo 2005ko urtarrilaren batetik ordura noizbait aktiboan izan diren UPV/EHU-ko Irakasle eta Ikerlariak, zerbitzu berezietan edo umeen zaintzagatik eszedentzian daudenak barne. Azken kasu honetan, osagarriak itzultzerakoan jasoko dira.

2) UPV/EHUrekiko lotura C, B eta A tramoetarako berdina dena

- Partzialean egindako denbora bere osotasunean hartuko da kontutan antzintasuna neurtzerakoan.
- Aktiboan emandako denboraren balio bera izango dute zerbitzu berezietan eta umeen zaintzagatik eszedentzian igarotako denbora.
- Lan harremanen bidezko zerbitzuak bakarrik hartuko dira kontutan orokorrean, baina deialdi ofizialetako ikerketa beken (UPV/EHU, Eusko Jaurlaritza, edo Hezkuntza Ministeriokoak) denbora ere kontutan hartuko da bat-bat erlazioan.
- 2004ko abenduak 31-rarteko zerbitzuak hartuko dira kontutan, edo baldintzak betetezen diren unerarterakoak, azken hau eskabideak eskatzeko epea irekita dagoen unearen mugarekin, hots **2007ko apirilaren 19arte**.

3) C tramoko osagarriak

C maila, Euskal Herriko Unibertsitatearekiko dedikazio profesionala saritzeko da. Bi tarte izango ditu:

- C1= 1625 € 3 urteko lotura UPV-EHU-rekin
- C2= 2125 €, 7 urteko lotura UPV-EHU-rekin

4) C mailako merituen ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa

- UPV-EHU-n zerbitzuak bete izana egiaztatu. Egiaztapen hau unibertsitateak berak egingo du ofizioz, beken denbora kenduta. Garai hau kontatzeko norberak egiaztatu behar du.
- Irakasleen Errektoreordetzak, dagokion Sailaren txostenaren ondoren, dozentziaren gainean txosten negatiborik eta dozentziako inkestetan balorazio negatibo jarraituarik ez dela izan ziurtatuko du. Prozedura hau indarrean dago jada eta Sailek hilabete hau dute beraien txostenak egin eta bidaltzeko.
- Aurrekoa baldintza ez dute bete behar denbora jakinaz irakaskuntzatik at dagoen pertsonalak, bai kargo akademikoak direla, bai mota anitzetako liberazioak dituztelako (euskera, sabatikoa, eguneratzeak, sindikala,..), edota zerbitzu berezietan edo umeen zaintzagatik eszedentzian daudenak

5) C maila Ikerlarien kasuan

- UPV-EHU-n emandako zerbitzuak egiaztatu
- Ebaluatzeko aurkezten diren merituen dokumentazioa.

6) B mailako osagarriak

B maila, kalitatea eta etengabeko hobekuntza saritzeko da. Hiru tarte izango ditu:

- B1= 1600 € 5 urteko antzintasuna egiaztatzea; C1 tarte dagoeneko izatea eta 25 puntu.
- B2=1900 € 10 urteko antzintasuna egiaztatzea; C1 eta C2 izatea eta 50 puntu.
- B3=2200 € 10 urteko antzintasuna egiaztatzea; C1 eta C2 izatea eta 75 puntu.



7) A mailako osagarriaK

A maila, bikaintasuna saritzeko da. Eskuratzeko 10 urteko antzintasuna eta 90 puntu egiaztatu behar da gutxienez, eta bi tarte izango ditu, A1=2100 € eta A2=2600 €

8) B eta A mailako merituen ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa

- UPV-EHU-n zerbitzuak bete izana egiaztatu. Egiaztapen hau unibertsitateak berak egingo du ofizioz, beken denbora kenduta. Garai hau kontatzeko norberak egiaztatu behar du.
- Esandako merituen egiaztatzen dituzten dokumentuen fotokopiak. Oraindik ez da zehaztu nola egiaztatu aurkeztu behar dire merituen. UNIQUAL argibide dokumentu bat ari da prestatzen honen inguruan.

9) Eskaerak eta Epeak

- Gobernu Kontseilura harek UNIQUAL Agentziara bidaltzeko espreski adieraziz. Eskaerak egiteko bi hilabeteko epea dago (apirilaren 19raino). Eskabide orria UPV/EHUko web orrian dago.
- Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Irakaslegoaren Errektoreordetzak 10 eguneko epea emango die afektatuei egon diren akatsak konpontzeko.
- Sindikatuaren ordezkariarekin izan ondoren, Irakasleen Errektoreordetzak UNIQUALera bidaliko ditu eskaerak eta Agentziak eskatutako dokumentazioa.

10) Euskeraz egindako jarduerak Akademikoa

- Administrazioak ez du argitu atal honen egiaztapena berak egingo duen ofizioz (plazaren perfilaren arabera) edo Zentroetako Idazkaritza akademikoek emandako ziurtagirien bidez. Zehazteke dago % 50era heltzen ez den euskarazko jarduerak akademikoak izango duen trataera.
- Euskarazko merituen koefizientea modu bereiztuan aplikatuko da dozentzian eta ikerketan.

11) Ebaluatutako merituen epea.

- Lehenengo ebaluazioan (oraingoa) eskatzaileak bere bizitza akademiko guztiko merezimenduak – 2004ko abendura arte– arrazoitu beharko ditu. Ondorengo ebaluazioak aurreko ebaluazioa eta deialdiaren arteko denbora-tartean garatutako jardueraren gainean egingo dira.
- 2006ko Abenduak 31 arteko merituen aurkeztu daitezke, baina oraindik ez dute argitu zein atzerako eragin izango duten tramua bakoitzeko epe ezberdina zehaztutako eskaerak jasotako ebaluazio positiboak.

12) Ebaluazio Batzordeak, Ebaluaketa eta Ebazpena

- Ebaluazio Batzordeak gutxienez bi sexenio dituzten 7 kidez osatuak egongo dira, eta hauen osaketa EHAAan eta UNIQUALeko web orrian publikatuko dira. Bi hizkuntza ofizialetan aurkeztutako eskabideak aztertzeko moduan izango diren ebaluatzaileak izango direla bermatuko da.
- UNIQUALek ebaluazio irizpideak publikoak egiteko borondatea agertu du baina ez du konpromisorik hartu eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik izango denik.
- Aurkeztutako eskabideak, jakintza-arloaren eta eskatzaileak eskatutako arloaren arabera esleituko zaizkie dagokien Ebaluazio Batzordeei. Batzorde bakoitzeko kideek banaka eta euren kabuz ebaluatuko dituzte espedienteak, ondoren espedienteen ebaluazio bateratua egingo da non ebaluaziorako eskabide bakoitzarentzat txosten bakarra eta bateratua egingo da.
- Ebaluazioaren Ebazpena banakakoa izango da. Epai teknikoa izango da eta bertan tramua bakoitzari dagokion ebaluazioa positiboa edo negatiboa den zehaztuko da, positiboa denean puntuazioarekin.



13) Ebaluazio positiboa

- a. Ebaluazio positiboak bost urteko iraupena duenez Dekretuko 8.7 artikulua arabera, epe hau lehenengo deialdian ebaluatutako azken urtetik aurrera kontatuko da. Ez dagoena argi da zeintzuk diren xedapen honen ondorioak deialdi honetan eskatutako antzintasuna ez duten irakasle eta ikertzaileentzat, ezta eskatutako tramu guztiek ebaluazio positiboa jasotzen ez duten kasuan.
- b. Bi Sindikatuon exigentzia: deialdi honetan tramuak eskatzea mugatua duten irakasle eta ikertzaileak tramu hauek eskatu ahal izango dute antzintasun baldintzak bete eta hurrengo deialdian, bost urteko epea itxaron gabe.

14) C mailako osagarrien esleipena

- a. Deialdia bi fasetan ebatziko da: lehenengo C osagarriak esleituko dira eta gero B eta A merituetakoak.
- b. UPV-EHU-ko Gobernu Kontseiluak Agentziak ebaluatutako C mailako osagarrien esleipen proposamena onartuko du eta Gizarte Kontseilura bidaliko du hauek ere onartzeko.
- c. Gizarte Kontseiluak onartutako eskaeraren kopia bidaliko du UPV-EHU-ra, eragin ekonomikoak azalduz, eta interesatu bakoitzari erabakia helaraziz.

15) B eta A osagarrien esleipena

- a. Antzintasunari lotutako baldintza egiaztatu ondoren (5 edo 10 urte), C mailako osagarriekin aipatu den prozedura bera.
- b. B2 tramuaren kasuan, nahiz eta Protokoloan Doktore titulua izateko exigentzia zehazten duen hura eskatu ahal izateko, hura eskatzen dituzten eskabide guztiak ebaluatuko dira, eta txosten positiboa emango zaie 50 puntura iristen diren eskabide guztiei.

16) Eragin ekonomikoak

- a. Orokorrean 2005-ko urtarrilaren 1-tik. Antzintasun baldintzak deialdi epea itxi aurreko beste edozein unetan betetzen badira, baldintza horiek betetzen diren hurrengo egunetik aurrera.
- b. Administrazioak ez du argitu zein eragin ekonomiko izango duten tramu ezberdinetan betetze data desberdinak zehazten dituzten eskabideak.
- c. Arduraldi partzialeko irakasleen kasuan maila bakoitzeko osagarrien kopuruak duten arduraldiaren proportzioan ordainduko dira.

17) Helegiteak

Merituen ebaluazioaren gainean UNIQVAL agentziak egingo duen ebazpenaren aurkako helegitea jartzea dago Agentziaren aurrean hilabeteren buruan edo bi hilabetetan auzibide kontenziosotik baldin bada.

18) Informazioa

Eskabideak kudeatzeko eta zalantzak bideratzeko Irakasleen Errektoreordetzak bere web orrian ohiko galderen inguruko erantzunak publikatuko ditu. Horretarako helbide honetara jo dezakezue consultas.complementos@ehu.es edo bi luzapen hauetara (14) 3520 eta (14) 3521. UNIQVALek ere antzerako prozedura jarri du martxan bere web orrian: www.uniqval.es

Informatzen jarraituko dugu.